

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

360/2025 Foru Agindua, ekainaren 20koa. Foru Agindua, Ainhua Usandizaga Zubiaurre bitarteko funtzionario izendatzen duena, Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako taldeko idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko, zeina eratu baitzen lanpostua batera mantentzeko

Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak idazkari-lanpostu bat batera mantentzeko eratutako taldeak, 2025eko ekainaren 2an, jakinarazi du ezen idazkari kontuhartzaile lanpostua bitarteko izendapenarekin betetzen ari den funtzionarioa amatasun bajaran dagoela, eta Ainhua Usandizaga Zubiaurre bitarteko gisa izendatzeko eskatu du, lanpostu hori betetzeko. Izendapenak 2025eko ekainaren 9tik aurrera izango ditu ondorioak, gaur egun lanpostua betetzen ari den funtzionarioa lanera itzuli arte.

Espedientean jasota dago martxoaren 31ko ALHAOn (37. zk.) argitaratu zela estatutako gaikuntza duten funtzionarioei lanpostua eskaini zitzaiela, baina ez da eskaerarik jaso hartarako eskainitako epean, eta bitarteko funtzionario bat izendatzeko espedienteak hasi da.

Legutioko Udalak badu lan poltsa bat indarrean, duela gutxi oposizio-lehiaketa bidez izapidetua, berdintasun, merezimendu, gaitasun, publikotasun eta bizkortasun printzipioak betez, udal horretako idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko, baina irekita dago, halaber, beste toki erakunde batzuek erabil dezaten, eta bertako kideek berariaz baimena eman dute beren datuak haiei emateko. Lan poltsa hori eskatu ondoren, eskatu beharreko derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna zeukaten hango hautagai guztien ezezko erantzuna jaso zen, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion estatutako gaikuntza duten funtzionarioen lanpostuak bitarteko gisa betetzeko lan poltsako izangai bat. Azkenean, lan poltsa hori ondoriorik gabe utzi da Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren 2025eko maiatzaren 8ko ebazpenaren bidez.

Azkenik, Ainhua Usandizaga Zubiaurrek, zeina Legutioko Udaleko lan poltsan dagoen hautagaia baita, adierazi du prest dagoela lanpostua betetzeko, eta hartarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu du.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua aldi baterako funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena”

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ainhua Usandizaga Zubiaurre izendatzea, 2025eko ekainaren 9tik aurrerako ondorioekin, Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako taldean idazkari kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, harik eta gaur egun lanpostu hori betetzen ari den funtzionarioa, baja amaitu ondoren, itzuli arte, edo legez bete arte, Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Taldeko lehendakariak sail honi jakinarazi beharko dio idazkari kontuhartzailea noiz itzuliko den lanera, espedientean jasota gera dadin.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako taldeari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 20a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA